

# **LEIOAKO ENPRESEN UDAL MINTEGIA**

**Oinarri arautzaileak  
eta  
Eredu Operatiboa**

2017ko urtarrila

## Aurkibidea

<b>1.</b>	<b><u>AURREKARIAK.....</u></b>	<b><u>3</u></b>
<b>2.</b>	<b><u>MINTEGIAREN HELBURUAK.....</u></b>	<b><u>4</u></b>
<b>3.</b>	<b><u>MINTEGIAREN DESKRIBAPENA.....</u></b>	<b><u>5</u></b>
3.1	Tokia.....	5
3.2	Zerbitzuak.....	6
<b>4.</b>	<b><u>OINARRI ARAUTZAILEAK.....</u></b>	<b><u>7</u></b>
4.1	Adjudikazioaren EZAUGARRIAK.....	7
4.2	ENPRESA ONURADUNAK.....	8
4.3	PROIEKTU-MOTAK.....	10
4.4	MODULUAK ADJUDIKATZEKO PROZEDURA.....	10
4.4.1	Eskaera-fasea.....	10
4.4.2	Adjudikazio-fasea.....	11
4.4.3	Sarbide-fasea.....	13
4.4.4	Jarraipen- fasea.....	13
4.5	EBALUAZIO BATZORDEA.....	14
4.6	MODULUAK HAUTATZEA.....	14
4.7	EBALUAZIO IRIZPIDEAK.....	14
<b>5.</b>	<b><u>EREDU OPERATIBOA.....</u></b>	<b><u>15</u></b>
5.1	FUNTZIONAMENDU-ARAUAK.....	15
5.1.1	Leioako Udalarekiko harremana.....	15
5.1.2	Erabilera.....	16
5.1.3	Obrak.....	17
5.1.4	Segurtasuna.....	17
5.1.5	Asegurua eta gizarte-erantzukizuna.....	17
5.1.6	Indarreko legeria.....	18
5.1.7	Zaborra, hondakinak eta zarata.....	18
5.2	SEGURTASUN-PROZEDURA.....	18
5.2.1	Ohar orokorrak.....	19
5.2.2	Adjudikaziodunentzako sarbidea.....	19
5.2.3	Adjudikaziodun ez direnentzako sarbidea.....	19
5.3	PREZIOA ETA BARNE DAUDEN KONTZEPTUAK.....	19
<b>6.</b>	<b><u>AZKEN OHARRA.....</u></b>	<b><u>21</u></b>

## 1. AURREKARIAK

Leioako Behargintzako ekintzailtza atalak lan egiten du udalerriko sustapen ekonomikoaren alde, enpresa berriak abian jartzea lagunduz, beren merkatu-egonkortasuna bermatzea ahalbidetzen duten ikuspegi berritzaileak sustatuta.

Zerbitzu honek Leioan bizi nahiz ez baina udalerrian enpresa proiektua garatu nahi duten pertsoneri laguntza ematea du xede.

Praktikan, honako zereginak sartzen dira zerbitzuaren barruan:

- Negozio plana garatzeko laguntza eskaintzea.
- Enpresa bat martxan jartzean kontuan hartu behar diren alderdi desberdinei buruzko aholkuak ematea, besteak beste, jarduera definitzea, faktore bereizgarri edo berritzaileak, kokapena, forma juridikoa...
- Negozio ereduaren diseinua
- Administrazio desberdinekin egin beharreko tramiteen berri eman eta horiek betetzen laguntzea.
- Proiektu bakoitzak dituen beharrian bereziei lotutako laguntzei buruzko informazioa ematea.

Pertsoneri ematen zaien laguntza ez da amaitzen enpresa abian jartzearekin, LEIOAKO UDALEKO Behargintzatik jarraipena eskaintzen baita sustapen ekonomikoko ataletik. Horrela, enpresen bizi-zikloa osatzen duten etapa guztiak barne hartzen dira.

Ekintzailtza atalaren barruan, enpresen udal mintegiaren kudeaketa dago, udalerrian instalatzen diren enpresa berriei laguntza ematea helburu duena kokalekua eskainiz. Horrela, batetik, enpresa helburuak betetzen laguntzen da, eta bestetik, Leioan enplegua eta aberastasuna sortzen lagundu.

Idea berritzaileak erakarri nahi dira. Horretarako, horiek sustatzen dituztenei laguntza emango zaie, negozio horiek mintegiko moduluetan sartuz eta tutoretza eskainiz. Horren barruan sartuko dira bai finantzaketa publiko eta pribatua bilatzeko laguntza, bai enpresa osatzen duten eremu desberdinetan prestatzeko aukera, harrera-enpresekin gara daitezkeen eta lehiakortasuna hobetzen duten beste proiektu batzuen garapenez gain.

Agiri honetan, **Mintegiaren Oinarriak** jaso dira, hau da, Mintegiaren azpiegitura berriko zerbitzuen deskribapena eta berau osatuko duten moduluak eskuratzeko prozedura, eta **Eredu operatiboa**, enpresa adjudikaziodunen eta LEIOAKO UDALAREN arteko harremana arautuko duena, azken hori zerbitzuaren jabe eta kudeatzailea izango delarik, Behargintza Leioaren bidez.

## 2. MINTEGIAREN HELBURUAK

Gune publikoaren eskaintza honen bidez, enpresa ehundura sortu, hazi eta garatzeko baldintza orokorrak sustatu nahi dira, enpresa horiek merkaturatu eta merkatuan egonkortzeko ikuspegi berritzaileen bitartez. Hori dela-eta, honako xede zehatzak ezartzen dira:

Zerbitzuko enpresa hartzaileei dagokienez:

- Espiritu ekintzailea sustatzea
- Udalerriko enpresek elkar ezagut dezaten laguntzea
- Enpresen arteko lankidetzen ezarpena sustatzea
- Leioako enpresen arteko laguntza-sareen sorkuntza erraztea
- Berrikuntzaren kultura indartzea
- LEIOAKO UDALAK udalerriko enpresekin duen harremana areagotzea

Udallerriari dagokionez:

- Udallerrian enpleguaren sorrera sustatzea
- Aberastasuna sortzen laguntzea, jarduera ekonomikoa indartuz, udalerrria hobetzeko erabiliko diren baliabide gehiago sortu ahal izateko

Halaber, baliabideak batuta egonez gero tamaina handiagoko edota arrakasta-aukera ugariagoko proiektuak jorratu ahal direla uste denez, Behargintza Leioaren helburua Udal Mintegia udalaz gaindiko sareetan sartzeta da, beste mintegi, ikerketa-zentro, unibertsitate eta abarrekin batera.

### 3. MINTEGIAREN DESKRIBAPENA

#### 3.1 KOKAPENA

Udal Mintegi berria Leioako Ibaiondo plazako 1. zenbakian kokatuko da, 107 bulegoan. Azalera 184 m<sup>2</sup>-koa da eta honela dago osatuta:


- Leioako Behargintzako langileek okupatzen duten bulego teknikoak. Bertatik, enpresen mintegia eta entitatearen ekintzailatza saileko funtzioak kudeatuko dira.
- Bost modulu, enpresek erabiltzeko edo detektatutako beste beharrian batzuetarako, betiere mintegiaren xedeekin lotuak.

Planoko 6. Modulua (M6) enpresa bakarrari edo enpresa desberdinei esleitu ahal izango zaie, gehienez, lau lanpostu hartuz. Deialdi honetan aurkeztutako eskabideek ez badute eskuragarri dagoen espazio guztia betetzen, libre geratzen diren modulu honetako lekuak enpresen hazitoki gisa erabili ahal izango dira, garapen fasean dauden enpresa egitasmoetarako.

Deialdi honetara aurkeztzen diren eskaerekin ez bada eskuragarri dagoen espazio osoa betetzen, esleitu gabe geratzen diren moduluak eta sobera geratzen diren 6. moduluko postuak enpresa hazitegi moduan erabili ahal izango dira garapen fasean dauden enpresa proiektuetarako.

- Erabilera anitzeko areto 1, bitan bana daitekeena.

Jarraian, mintegiaren plano eta espazio bakoitzaren tamaina azaldu dira:



## 3.2 ZERBITZUAK

---

Mintegiak dituen zerbitzuak eta bere funtzionamendu-araubidea honakoak dira:

- **Administrazioa:** LEIOAKO UDALA gune komunekin eta LEIOAKO UDALAREN titulartasunpeko kontratuekin lotutako administrazio-lanak egiteaz arduratuko da.
- **Elektrizitatea eta girotzea:** energia elektriko guztia eta mintegiko girotzea udal titulartasuneko kontratu baten bidez kontratatuko da. Kontzeptu honen ordainketa jasota dago 5.3 atalean, "Salneurria eta barne sartzen diren kontzeptuak", ezartzen den metro karratu bakoitzeko prezioan.
- **Internet eta Telefonía:** enpresa adjudikaziodun bakoitzaren erantzukizuna izango da zerbitzu hau kontratatzea.
- **Datuen sarea:** modulu bakoitzak kable-sare bat dauka instalatuta.
- **Mantentze-lanak:** erabilera komuneko instalazioei dagokionaz LEIOAKO UDALA arduratu beharko da. Moduluetakoaz enpresa adjudikaziodunak arduratuko dira.
- **Garbiketa:** Mantentze-lanek duten funtzionamendu-araubide berdina. Adjudikaziodun bakoitzak bere modulua erabilera- eta garbiketa-egoera ezin hobean izan beharko du.
- **Segurtasuna:** ikusi protokoloa.
- **Erabilera anitzeko gela:** diseinatutako ekintzen topagune eta prestakuntza areto izango da. Sarbide askea du mintegian dauden enpresentzat, baina erabili ahal izateko aurretiaz erreserbatu beharko da, horretarako ezarrita dagoen protokoloaren bidez. Halaber, bere erabilera zuzenduta dago mintegitik kanpo dauden proiektu eta enpresei, Behargintzako erabiltzaile direnak, puntualki, euren jarduerarekin lotutako espazio-beharrak izan ditzaketenak. Kasu horretan, erreserba Behargintzaren oniritzi eta berrikuspenaren menpe egongo da.
- **Bainugela komunak:** eraikinak bainugela komunak ditu. Erabiltzeko eskubideak modulu bakoitzari eragingo dio, komunitaterako ekarpena izenekoaren bidez.

## 4. OINARRI ARAUTZAILEAK

### 4.1 ADJUDIKAZIOAREN EZAUGARRIAK

Enpresen Udal Mintegia LEIOAKO UDALARENA da eta Sustapen Ekonomiko, Prestakuntza eta Enplegu Arloak kudeatuko du (Behargintza Leioa).

Kudeatzeko, LEIOAKO UDALAK ezarritako helburuak bete beharko ditu, enpresa adjudikaziodunen eta udalaren arteko harremaneko funtzionamendu onari eta mintegiko instalazioen erabilera egokiari dagokienez. Halaber, bere funtzio nagusietako bat mintegiko moduluen enpresa adjudikaziodunei laguntza ematea izango da, beren negozioak ahalik eta baldintza onenetan gara ditzaten.

Zerbitzuaren barruan laguntza emango zaie enpresa adjudikaziodunei, mintegiko moduluen aldi baterako adjudikazio zainduaren bidez.

Horrenbestez, enpresa adjudikaziodunek honakoak izango dituzte beren esku:

- Adjudikatutako modulua edo lanpostuak
- Erabilera anitzeko gela
- Negozioari babes emateko zerbitzu erantsiak

Adjudikazioa hasieran bi urtekoa izango da, erosketa aukerarik ematen ez duen alokairu-araubidean. Hala ere, enpresa adjudikaziodunak, adjudikazioa indarrean dagoen azken bi hilabeteetan zehar, gehienez urtebete gehiago luzatzeko eskatu ahalko du.

Epealdi horretan zehar, modulu edo lanposturik libre utziko balu enpresa esleipendunak, esleipen kontratu berriak egiteko aukera legoke, aurkeztutako eskaeren osoko balorazioak ezarritako hurrenkeraren arabera. Deialdiak ezarritako unea baino beranduagoko esleipenok lehengo esleipendunari geratzen zitzaion denborarako izango dira. Kasu horretan, ez litzaioke ukatuko enpresa berriari ondorengo deialdietan aurkezteko aukera, betiere baldintzak beteko balitu.

Esleipena eta Mintegira sartzea ez badira egun berean ematen Leioako Behargintzaren ardurapekoak ez diren arrazoiengatik, egonaldia zenbatzen hasiko da kontratua sinatzen den egunetik aurrera.

Printzipioz, baiezko ebazpena emango da, honako bi arrazoietakoa bat tartean badago:

- Prestakuntza: enpresa adjudikaziodunak epe erantsi hori behar du bere negozioak arrakasta izateko funtsezko gaitasunak eskuratze aldera. Horretarako, garrantzitsua da mintegia ematen duen denbora.
- Epea luzatuz gero negozioak arrakasta izateko aukerak nabarmen areagotzen direla uste da, prestakuntzaren bidez gaitasunak eskuratzeko arrazoienez harago.

Enpresa adjudikaziodunek inola ere ezingo diete modulua hirugarrenei laga, alokatu edo eskualdatu.

Halaber, mintegiak ez du ekimen pribatuan dauden lokalen alokairuaren alternatiba izan behar; horren ordez, zerbitzu berri honen bitartez, LEIOAKO UDALAK babes eraginkorra izan nahi du hartutako

proiektuak garatzeko. Hori horrela, xedatutako denboran erabiltzeko eskubideaz gain, adjudikaziodunak eta LEIOAKO UDALAK harremana izango dute, enpresak negozioa garatzean izan ahal dituen gabeziak betetzen lagunduko duten ekimenak garatze aldera. Esate baterako:

- Babesa kudeaketa-sistemak ezartzeko orduan
- Gaitasunen garapena merkataritza-arloan
- Tresna eta baliabide finantzarioen identifikazioa
- Diru-laguntzen bilaketa
- Negozioetako ahultasun eta aukeren diagnostikoa
- Diruzaintzaren kudeaketa
- Identifikazioa eta harremana beste agente batzuekin, lankidetzat garatze aldera
- Marketin-estrategien garapena
- Elkarrekiko aberastasunerako baterako dinamikak mintegiko beste kide batzuekin batera
- Berrikuntzaranzko ikuspegia

Enpresa adjudikaziodunek ezartzen diren dinamiketan parte hartzeko konpromisoa hartuko dute.

## 4.2 ENPRESA ONURADUNAK

Edozein enpresa izan ahalko da adjudikazioduna, betiere honako egoeran badago eskaera aurkezten den unean:

- **Sortu berri den enpresa:** eskaera-data baino gehienez urtebete lehenago osatu den eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoen enpresa (bi baldintzak bete behar dira).

Enpresa ezingo da izan lehendik osatu zen beste baten jarraitutasun ekonomikoa, izen desberdina badu ere, edota ezingo ditu aurreko enpresaren elementu pertsonal eta material ugari erabili.

- **Existitzen den enpresa:** onartu egingo da, betiere hedatzeko beharrezana badu edo bere egungo kokapena hiri-antolamendutik kanpo geratu bada. Inguruabar horiek eskaera egiten den unean alegatu eta egiaztatuta beharko dira, LEIOAKO UDALAK azter ditzan.

Oinarri hauen ondoretarako, hedatzeko beharrezantzat joko da azken urtean bere langile kopurua murriztu ez duen eta enpresa-zentroetan moduluren bat behar duen enpresa, I+G+B proiekturen bat, negozio ildo berria edo antzeko zerbait ezarri duelako, eta espazio berriak behar dituelako.



Mintegian modulu baten adjudikazioduna izan ahal izateko, enpresa eskatzaileak honako baldintzak bete beharko ditu:

- Eskaera aurkezten duen unean:
  1. Zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
  2. Bazkideek Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) alta emanda egon beharko dute deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.
  3. Entitateak langilerik kontratatuta badauka, langile horiek Araubide Orokorrean alta emanda egon beharko dute, deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, egoki den modulua okupazioa balioetsi ahal izateko.
  4. Enpresa eskatzaileak ez du zorrik izango LEIOAKO UDALAREKIN, ez eta mintegian instalatuko den enpresarekin edota bere titulartasunpeko beste edozeinekin, titulartasun osoa nahiz partziala izanda ere.
  5. Negozioaren urteko bolumena edo urteko balantza orokorra ez izatea hiru milioi euro (3.000.000 €) baino altuagoa eta partaideen % 25 baino gehiago ez izatea baldintza hau urratzen duten enpresak.
  6. Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez edukitzea.
  7. Prozedura judizialaren adierazpenik eskatuta ez izatea, edozein prozeduratan kaudimengabetzat hartuta ez egotea, prozedura judizialean parte hartu ez izatea, epailearen esku-hartzearen mende ez egotea edo prozedura judizialari buruzko legearen arabera gaitasun gabetuta ez egotea prozedura judiziala kalifikatzeko epaian finkatutako gaitasun gabetzearen epealdia amaituta.
  8. Administrazioarekiko edozein kontratu erabaki irmoaz suntsiarazi ez izatea, errunduntzat hartzeko ebazpena dela-eta.
  9. Diru-laguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa egunean izatea.
- Modulua adjudikaziodunari entregatzen zaionetik:
  - Gizarte- eta zerga-helbidea Leioan izatea, mintegian sartu, eta gehienez, bi hilabeteko epean.
  - Beharrezkoa da esleitutako moduluetan enpresako langileak egotea.

Ezingo dira adjudikaziodun izan kideetako edozeinetan aipatu berri diren debekuren bat duten enpresak.

Seigarren modulua ez badu eskatzailearen batek erabat okupatzen, bete arte, garapenean dauden proiektuekin bete ahal izango da. Esleipen horiek deialdi publiko independenteen bidez egingo dira, Leioako Behargintzak sustatuta.

### 4.3 PROIEKTU-MOTAK

---

Hartu nahi diren proiektuak bi motatakoak dira:

- **Berritzaileak:** produktu edo zerbitzu berrien edo Leioako udalerrian berriak direnen garapena jotzen da berrikuntzatzat. Berrikuntza frogatu egin beharko da.
- **Gorabidean dauden sektoreetakoak:** berritzaileak izan behar izanik gabe, epe luzera hazkunde iraunkor indartsua izango duten eta Leioan aberastasuna eta enplegua sortzeko laguntza handia emango duten sektoreak.

### 4.4 MODULUAK ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

---

#### 4.4.1 Eskaera-fasea

Jarraian, mintegiko moduluak adjudikatzeko prozedura deskribatuko da. Prozedurak norgehiagoka araubidea jarraituko du.

Hasteko, LEIOAKO UDALAK deialdia ireki dela jakinaraziko du. Horretarako, udalaren web orrian argitaratuko du deialdia eta bertan jarriko du eskuragarri, eskaerak aurkezteko epea adierazita.

Une horretatik aurrera, interesa duten enpresek eskaera egokia aurkeztuko dute, oinarri hauek zehazten duten dokumentazioarekin batera.

Eskatzaile bakoitzak eskaera-espeditente bakarria hasi ahalko du eta udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera aurkeztu ahalko da.

Eskaera dokumentazio guztiarekin batera entregatzeko, Internet bidez egin daiteke, Behargintza Leioaren webgunetik ([www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)), edo dokumentazioa udal erregistroetan aurkeztuz (udaletxean edo Mendibil 3n dauden Leioako Behargintzaren bulegoetan). Behin dokumentazioa aurkeztuta, enpresa eskatzaileari jaso-agiria emango zaio.

#### **Aurkeztu beharreko agiriak:**

- Oro har, eskaera aurkeztean:
  1. Behargintza Leioaren web orritik deskargatu daitekeen inprimaki ofiziala.
  2. Enpresa eskatzailearen, eta, hala badagokio, berau osatzen duten pertsona edo erakundearen IFK edo NANA.
  3. Eskaera-data baino gehienez 30 egun lehenago Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
  4. Eskaera-data baino gehienez 30 egun arinago Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.
  5. Bazkideak Gizarte Segurantzako Kotizazio Erregimenean alta eman izanaren aitortpena.
  6. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Alta.

7. Talde sustatzaileko kideen errolda-agiria, Leioan erroldatutako dauden pertsonena salbu.
  8. Hala badagokio, Altako Langileei buruzko Txostena (ALT), eskaera-data baino gehienez 30 egun lehenagokoa. Gizarte Segurantzaren bulegoetan eskuratu daiteke.
  9. Aurkeztutako azken hileko TC1 eta TC2 agiriak.
  10. Negozio-plana, deialdi bakoitzean erabiltzen den txantiloia araberak, Behargintza Leioaren web orritik deskargatu daitekeena, [www.behargintzaleioa.net](http://www.behargintzaleioa.net)
- o Ondasun komunitate eta merkataritza sozietateen kasuan, eskaera aurkeztean honako agiriak ere gehitu beharko dira:
    1. Eraketa-eskirtura edo -kontratua, baita gizarte-estatutuak ere, behar bezala eguneratuak eta Merkataritza Erregistroan inskribatuak, hala badagokio.
    2. Merkataritza-sozietatearen ordezkariaren eta ahalordearen eskirtura. Ordezkaritza eta ahalordeak enpresako kide izan ahalko dira.

Eskabidearekin batera ez bada beharrezko dokumentazio guztia aurkezten edo gabeziaren bat antzematen bada, enpresa eskatzaileari mezu elektronikoz bidez eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean (eskaera bidali eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita) agiri egokiak aurkezteko. Epe horretan ez badu hutsegitea zuzendu, eskaera ukatutzat joko da. Eskatutako agiriak entregatzeko, eskaerarako adierazitako bitarteko berberak erabiliko dira.

Hutsik geratu ahal izango dira modulu bat edo gehiago gutxienezko puntuazioa lortzen ez badu eskatzaileen kopuru minimo batek. Halaber, negozio motagatik eta enpleguan duen eraginagatik justifikagarria balitz, modulu bat baino gehiago esleitu ahal izango litzaioke enpresa bakarrari.

Gutxienezko puntuazioa 25 puntukoa da (ebaluazioa irizpideak ikusi).

Esleipendun izan daitezkeenek emandako datuen bat gezurrezkoa balitz, edozein unetan, eskaera edo esleipena berehala bertan behera uzteko arrazoi izan liteke hori.

#### 4.4.2 Adjudikazio-fasea

Dokumentazio guztia LEIOAKO UDALAREN esku dagoenean, aurkeztutako proiektuen behin-behineko balorazioa argitaratuko da, negozio-planari oinarri hauetan ezarritako ebaluazio-irizpideak aplikatuta. Halaber, 5 egun balioduneko epea ezarriko da, argitalpenaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak jarri ahal izateko. Erreklamaziorik balego, behin betiko balorazioa onesten duen ebazpenean onartu edo berrikusiko litzateke. Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko ebazpena behin betiko izatera pasatuko da, automatikoki.

Ondoren, enpresa bakoitzari dei egingo zaio, bertaratu eta bere enpresa-proiektua babes dezan. Horretarako 15 minutu izango ditu. Defentsa hori ezinbestez egin beharrekoa da balorazio prozesu honetan, eta beraz, egiten ez bada, ulertuko da eskaerari nahita uko egiten zaiola.

Aurkezpen-dei hau mezu elektronikoz bidez jakinaraziko da. Deialdia jasotakoan, enpresak mezu elektronikoa bidaliko du beraz jaso duela adieraziz, honako helbidera: [behargintza.ekintzaile@leioa.net](mailto:behargintza.ekintzaile@leioa.net).

Bertaratzeko arazoren bat izanez gero, enpresak mezu elektronikoa adierazi beharko du aipatu helbidean, aurkezpena egiteko data baino gutxienez 2 egun lehenago.

Enpresak egoki ikusten badu bere egitasmoaren aurkezpen bisuala egitea, aurkezpen hori bezperan bidali beharko luke [behargintza.ekintzaile@leioa.net](mailto:behargintza.ekintzaile@leioa.net) helbidera, Behargintza Leioak beharrezko ekipamendu teknikoa presta dezan aurkezpena behar bezala bistartzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta aurkezpenak egin direnean, Ebaluazio Batzordeak, ebaluazio-irizpideak aplikatu ondoren, 10 egun balioduneko gehieneko epea izango du, enpresaren azken aurkezpenaren biharamunetik zenbatzen hasita, onartutako proiektuen zerrenda jasotzen duen ebazpena emateko, lortutako puntuazioaren arabera, enpresa adjudikaziodunak zeintzuk izan diren berariaz adierazita.

5 egun balioduneko epea ezarriko da erreklamazioak egiteko, ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Erreklamazio horiek gehienez 10 egun balioduneko epean ebatzi ahalko dira, erreklamazio-epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Ebazpena udalaren web orrian argitaratuko da eta bertan ikusi ahalko da. Berau izango da ebazpenaren baliozko jakinarazpen bakarra.

Adjudikaziodun izateko irizpideak betetzen dituzten enpresak eskuragarri dauden moduluak baino gehiago badira, modulua eskuratu ez duten enpresak erreserban egongo dira, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman zutenetik urte bete igaro arte edo mezu elektronikoa bidez berariaz adierazi arte, mintegiko moduluren bat libre geratzen bada beraiek erabil dezaten.

Berdinketarik egonez gero, honako proiektuek izango dute lehentasuna:

- Lehenik eta behin, berrikuntzaren atalean puntuazio altuagoa lortu dutenek.
- Bigarrenik, lanpostu gehien sortzen dituztenek, bazkide langileen eta kontratu mugagabearekin kontratatuko langileen lanpostuak zenbatuta.
- Hirugarrenik, inbertsio handiena eskatzen dutenek.

Modulurik hutsik geratuko balitz, Leioako Behargintzak horiek erabiltzeko eskubidea gordetzen du ondo irizten dituen irizpideen arabera, betiere instalazioen izaera aintzat hartuta.

Hurrengo 10 egun baliodunetan, gehienez, deialdia ebatzi eta erreklamazioak egiteko epea igaro ondoren, adjudikaziodun izan diren enpresa eskatzaileak LEIOAKO UDALAREKIN harremanetan jarriko dira, adjudikazioa formalizatzeko. Horretarako, dagokion kontratua sinatuko dute, eta, une horretan, adjudikazio-prozedura amaitutzat joko da.

Esleipena egin eta bi hilabeteko epean, enpresa esleipendunak aurkeztu beharko du:

1. Helbide fiskal eta soziala Leioan duela dioen egiaztagiria.
2. Jardueragatik beragatik eragin litezkeen kalteetarako aseguru poliza kontratatuta edukitzearen egiaztagiria.
3. Udalaren irekiera-jakinazpenaren kopia.
4. Mintegian egoteko gutxi gora beherako ordutegia.
5. Enpresa eskatzailearen hartzekodun fitxa.

Esleipena gauzaturtat joko da baldintza honekin: esleipen prozedura amaitu eta bi hilabeteko epean, esleipendunak goian aipaturtako poliza eta baimenak aurkeztea.

Xedaturtako epeetan adjudikazioa formalizatu ez badu, enpresa onuradunari egotz dakioken kausaren batengatik, ukaturtat joko da eta LEIOAKO UDALAREN esku geraturtako da modulua, hala nahi izanez gero. Arrazioa adjudikaziodunari egotzi ezin zaion kausaren bat bada, ordea, 15 egun balioduneko epea luzaturtako da automatikoki.

LEIOAKO UDALAK aurkeztu diren eskaera guztietan berariazko ebazpena egiteko duen betebeharrari kalterik eragin gabe, ebazpen-epea amaitzean ez bada berau berariaz eman, eskaera administrazioaren isiltasun bidez ezetsi dela ulertuko da, gero bestelakoa dioen ebazpenik egin ezean.

#### 4.4.3 Sarbide-fasea

Mintegiko modulu bat duen enpresa adjudikaziodun berri orok honako baldintzak bete beharko ditu:

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeari dagokionez, Segurtasunaren Prozeduran zehaturtutakoa beteko da.
- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza kontraturtatu beharko da, zenbatekoa garatu beharreko jardueraren araberakoa izango delarik, adjudikaziodun guztien intereserako, jarduera hau gauzaturtean sor daitezkeen arrisku guztiak estaltze aldera. Dokumentazio hori esleiturtako modulua okupatu aurretik entregaturtako da edo lokaletan instalatu eta hilabeteko gehienezko epean.
- Sustatzaileek erantzukizun zibileko aseguruan kontraturtaturtako baldintzen kopia eta hasierako ordainketaren ziurtagiria entregaturtako dituzte.
- Enpresa adjudikaziodunak idatziz entregaturtako du mintegian egoteko orientazio-ordutegia eta LEIOAKO UDALAK ontzat eman beharko du.
- Enpresa adjudikaziodunek beren kontura egin beharko dituzte LEIOAKO UDALAK eskatzen dituen neurri guztiak, garatu beharreko jarduerak ondo funtziona dezan.
- Leioako Udalak ordainduko du modulu bakoitzeko sarreran kokaturtako identifikazio plaka. Hala ere, akats materialengatik edo kokaturte orduko errakuntzengatik egiten ez den ondorengo edozein aldaketa enpresa esleipendunak berak ordainduko du.

#### 4.4.4 Jarraipen- fasea

- Urtero, **urteko kontuak** entregaturtako dituzte, Leioako Behargintzako teknikariek hala eskaturtaz gero.
- Erantzukizun zibileko aseguruari dagokionez, sustatzaileek kontraturtaren baldintzetan egondako aldaketak entregaturtako dituzte, bai eta sortzen diren berrikuntzak ordaintzeko ziurtagiriak ere.
- Leioako Enpresen Udal Mintegiaren helburuen arabera, enpresa adjudikaziodunak funtzionamenduaren metodologian eta LEIOAKO UDALAK ezarritako ekintzetan inplikaturtako dira.

## 4.5 EBALUAZIO BATZORDEA

Gutxienez, LEIOAKO UDALEKO ordezkari batek eta mintegirako finantzaketa edo kudeaketa-erabakiak ezarri dituzten erakunde bakoitzeko teknikariek, ekintzailletza sustatzearekin lotuta daudenak, osatuko dute. LEIOAKO UDALAREN aldetik, ordezkaria alkate-udalburua edo hark eskuordetutako pertsona izango da. Gainerako erakundeek beren kabuz izendatuko dute Ebaluazio Batzorderako ordezkaria.

Ebaluazio Batzordea gutxienez hiru kidek osatuko dute, inplikaturako organismoen kopurua edozein izanda ere. Erakunde bakoitzak batzorde honetan duen ordezkari-tza horretarako zehaztutako erabakien arabera finkatuko da.

## 4.6 MODULUAK HAUTATZEA

Enpresa adjudikaziodunei LEIOAKO UDALAK esleituko dizkie guneak, eta horretarako, enpresek eskabidearen bitartez azaldutako interesa ez ezik, kontuan hartuko du, baita ere, egitasmoen, mintegiaren xedearen eta enpresa esleipendunen etorkizuneko beharrezan osagarritasuna

Modulu liberrik balego, eta esleipendunen batek moduluz aldatu nahiko balu, eskabide arrazoitua bidali beharko da idatziz udal erregistrora eta kontratu berria egingo da kokapen aldaketa adieraziz. Halaber, aseguru poliza berria aurkeztu beharko da, kokapen berriaren ezaugarriak aintzat hartzen dituena.

## 4.7 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proiektu desberdinen balorazioa honela zehaztuko da:

- Negozio-plana, horretarako txantiloien arabera, taula honetan adierazitako irizpideei jarraiki ebaluatuko da: gehienez 100 puntu, hau da, azken puntuazioaren % 60.

	<b>Baorazioa</b>
APLIKATUTAKO BERRIKUNTZA	20
TEKNOLOGIA ETA PRESENTZIA DIGITALA	15
NEGOZIO EREDUAREN GARAPENA	15
TALDE EKINTZAILEAREN JATORRIA	10
LAN TALDEA ETA SORTUTAKO LANPOSTUAK	10
EMAKUMEEN EKINTZAILTZA	10
INBERTSIOA ETA FINANTZAZIOA	10
INGURUMENA HOBETZEA	5
IKERKETA ZENTROEKIKO HARREMANA	5
	<b>100</b>

Eskatuko den gutxieneko puntuazioa 25 puntukoa izango da.

- Elkarrizketa: enpresa eskatzaileak proiektua aurkeztuko du eta informazioa hedatuko da Ebaluazio Batzordeak egokitzen jotzen dituen alderdietan: gehienez 100 puntu, hau da, azken puntuazioaren % 40.

## 5. EREDU OPERATIBOA

### 5.1 FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

Mintegia pertsoneri beren proiektuak martxan jartzen laguntzeko jarriko da abian; bereziki, Leioan erroldatuta dauden eta negozio-ideia berritzaileak dituztenei babes emateko.

Horretarako, mintegiak funtzio hirukoitza izango du:

- Hasteko, antzeko anbizioak dituzten beste pertsona batzuekin instalazioak partekatu ahalko dituzten giroan sartzen ditu enpresak.
- Gainera, kostu baxuko azpiegitura jartzen da proiektu adjudikaziodunen esku.
- Eta, azkenik, udalak garapen handiagoa eskatzen duten arloetan laguntzeko eskaintzen dituen baliabideak jartzen dira bere esku.

Adierazitakoa lortzeko, lehenengo puntuan nahikoa izango da pertsona ekintzaileek izan ohi duten lankidetzak eta ekintzailetzako espiritua, beren inguruan dituzten proiektuetako pertsonekin harremanetan jarri ahal izateko.

Mintegiaren sortze-arrazoia da jarrera proaktiboa izatea ekintzaileekin, beren beharrianak arin antzemateko eta horiek betetzeko ekintza planak antolatuz.

Hori horrela, ekintzaileek edozein unetan LEIOAKO UDALAREKIN harremanetan egoteko duten aukeraz gain, honako lan-dinamika ezartzen da:

- Sei hilean behin enpresa bakoitzaren eta LEIOAKO UDALAREN arteko bilera egingo da, proiektuaren aurrerapen-maila ebaluatzeko: zein zailtasun aurkitu diren, ikerketa-zentro edo aditu baten lankidetzak behar duten, nazioarteko aholkularitza behar ote duten eta abar.
- Inkesten edo spot topaketen bidez, prestakuntza-saio espezifikoak zein alortan planifikatuko diren identifikatuko da.
- Lankidetzak-sareak edo -taldeak identifikatuko dira, ekintzaileek beren proiektuak garatu edo handiago bat sortu edo partekatu dezaten.

#### 5.1.1 Leioako Udalarekiko harremana

- **Lizentziak:** adjudikaziodunek beren jarduerak garatzeko nahitaezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak tramitatu eta eduki beharko dituzte.
- **Fidantza:** enpresa adjudikaziodunak, erabakia sinatzen den unean, fidantza banku transferentzia bidez entregatuko du, 3 hileroko errentari dagokionez, kontratu honen bidez hartutako betebeharrak betetze aldera.

Fidantza hori adjudikazioa ebatztean itzuliko da, gehienez, bi hilabeteko epean, modulua baldintza ezin hobeean egoteko beharriari erantzun ondoren.

- **LEIOAKO UDALA** adjudikaziodunarekin harremana duen edozein unetan sartu ahalko da moduluetan, lege ezarritako eran.

- **Jakinarazpenetarako helbidea:** adjudikaziodunak modulu adjudikatua adieraziko du edozein jakinarazpen egiteko helbide gisa.
- Alderdiak LEIOAKO UDALARI dagozkion **epaitegi eta auzitegien** menpean daude.
- Enpresa adjudikaziodunek **epe barruan erantzungo diete** LEIOAKO UDALETIK egiten zaizkien informazio-eskaerei.
- Enpresa adjudikaziodunek Behargintza Leioak antolatutako **ekimenetan parte hartu beharko dute**, deialdia jaso badute.
- Adjudikaziodunak agiri honetan jasotako baldintzaren bat **urratzen** badu, LEIOAKO UDALAK kontratua suntsitu ahalko du, berehala. Hala egin eginez gero, legez ezarritako eran emango da erabaki horren berri.
- Adjudikaziodunak ezingo du **errentaren ordainketa eten, inola ere**, salbu eta LEIOAKO UDALAK idatziz baimentzen badu.
- **Adjudikazioa amaitzean**, enpresa adjudikaziodunak libre utzi beharko du lokala, 15 egun naturaleko epe luzaezinean, iraungipenetik zenbatzen hasita, edo berehala, arau-hausteren baten ondorioz adjudikazioa suntsitu bada. Lokaletatik atera ez den gauza oro abandonatutako ondasuntzat joko da eta LEIOAKO UDALAK hartu ahalko du, nahi izanez gero.

### 5.1.2 Erabilera

- **Moduluaren xedea:** adjudikatutako modulua enpresa adjudikaziodunaren jarduera garatzeko baino ez da erabiliko eta ezingo da beste negozio batera bideratu, LEIOAKO UDALAK berariazko eta idatzizko baimena eman ez badu.
- Adjudikaziodunak bere jarduera **martxan izan behar du** berau okupatzen duen aldi osoan zehar.
- Adjudikaziodunak **ezingo du** bere modulua **osorik edo partzialki laga, azpialokatu edo eskualdatu**.
- **Errotuluak eta kartelak:** LEIOAKO UDALAK leku bat dauka enpresa bakoitzaren seinaleak jartzeko mintegiko instalazioen barruan, baita enpresa horien kokapenari buruzko jarraibide orokorrak emateko ere.

Behargintza Leioari dagokio direktorio orokorrak eguneratzea. Enpresaren plaka aldatzea eskatzen duen edozein logo edo izen aldaketak enpresak berak ordaindu beharko du.

Leioako Udalak jarriko du moduluen sarrerako identifikazio-plaka, materialean edo inprimatzean akatsa dagoen kasuak kenduta. Identifikazioa esleipendunak emandako logoarekin arabera egingo da, eta koloreak, Pantone sistemaren arabera identifikatuko dira.

- **Posta:** posta-zerbitzuak entregatuko du posta, modulu bakoitzari egokitutako postontzietan.
- **Moduluaren eta elementu komunaren erabilera:** adjudikaziodunak adjudikatutako modulua eta elementu komunak era egokian erabiltzen direla zainduko du.



- Nolanahi ere, adjudikaziodunak **ez ditu mintegiari kalte eragiten dioten edo** mintegiko gainerako erabiltzaileei eragozpenak edo **deserosotasunak sortzen dizkieten jarduerak garatuko modulan.**
- **Adjudikazioduna arduratuko da modulua kontserbatzeaz** eta LEIOAKO UDALAK ez du altzariak kontserbatu eta berrezartzeko obrarik egin beharko.
- **Mantentze-lana:** moduluetan nahiz bulego komunetan antzematen diren akats eta anomalia guztiak LEIOAKO UDALARI jakinarazi beharko zaizkio.
- **Biltegiratzea:** mintegiko instalazioen barruan era guztietako produktuak biltegiratzeko guneak dagokion moduluaren barruan kokatu beharko dira eta debekatuta egongo da beste gune komun batzuk horretarako erabiltzea.

### 5.1.3 Obrak

Enpresa adjudikaziodunek, LEIOAKO UDALARI baimena eskatu ondoren, baimendu eta onartutako obrak egin ahal izango dituzte, beren kontura eta beren modulan. Berariaz debekatuta daude moduluaren (egitura, instalazioak, eta abar), elementu komunak edo kanpoko osaeraren izaera, banaketa edo osaera nolabait aldatzen duten obrak. Baina, hala badagokio, LEIOAKO UDALAK baimendu egin ahalko ditu, mintegian egoteko epea amaitzen denean gauzak lehen zeuden moduan jartzeko betebeharra ezarri ahalko duelarik.

### 5.1.4 Segurtasuna

Segurtasun eta larrialdietarako plana dago, lan arriskuei buruzko gaur eguneko araudiaren araberakoa, enpresa adjudikaziodunen eskura geratzen dena.

### 5.1.5 Asegurua eta gizarte-erantzukizuna

- Moduluko pertsona adjudikaziodun edo okupatzaile bakoitzari egotzi ahal zaion **kulpa edo zabarkeriaren erantzukizuna** adjudikazioaren konturakoa izango da, gertaera edo omisio horren egile materialaren kontra egotzi ahal zaizkion egintzei kalterik eragin gabe. Gainera, LEIOAKO UDALA ez da mintegiko edozein gunetan edo leku komunetan gertatzen diren kalte edo lapurreten erantzulea izango.
- **Erantzukizuna:** adjudikaziodunak bere egintzez erantzuteaz gain, modulu adjudikatuan dauden pertsonak egin ditzaketenei ere erantzuten die, bai adjudikazioa suntsitzeko ondoretarako, bai kalte edo eragozpenen kalte-ordain posible baterako.

### 5.1.6 Indarreko legeria

Adjudikaziodunak indarreko araudia beteko du, bereziki honakoetan:

- **Segurtasuna eta osasuna:** batez ere laneko arriskuak prebenitzeari dagokionez.
- **Ingurumenaren babesa:** batez ere lurzoruko kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagokienez.

- **Laneko araudia:** adjudikaziodun bakoitza arduratuko da bere bulegoetan indarreko lan-araudia betetzeaz.
- Orokorrean, garatutako jarduerari aplikatu behar zaion **beste edozein araudi**, berariaz adierazi ez den arren.

### 5.1.7 Zaborra, hondakinak eta zarata

- Enpresa adjudikaziodun bakoitza **sortzen dituen hondakinak botatzeaz arduratuko da**. Ezingo da etxeko izaera ez duen hondakin solido edo likidorik sortu. Bainugeletan eta saneamendusarean ez da inolako hondakin solido edo likidorik isuriko. Beren jarduera dela eta hondakin bereziak sortzen dituzten erabiltzaileak horien bilketaz arduratuko beharko dira, LEIOAKO UDALAK horiek sortzeko baimena eman ondoren, legezko bideetan eta baimendutako zerbitzuen bidez.
- **Ebakuazio kaltegarriak:** mintegia erabiltzen duten pertsona guztiek beren jardueran sor daitezkeen kanporako ebakuazio kaltegarri, solido, likido edo gasdunak saihesteko beharrezko ekipamenduak instalatu eta mantendu beharko dituzte, bitarteko tekniko eta ekonomikoez baliatuz. Produkturen bat ebakuatzeagatik hirugarrenei eragiten zaizkien kalteak adjudikaziodunen erantzukizuna izango dira, soil-soilik.
- **Zarata, hauts eta isuriei buruzko araudia:** mintegiko adjudikaziodun bakoitza arduratuko da ingurumenaren gaineko indarreko legedia betetzeaz, batez ere zarata, hauts eta isuriei dagokienez.

## 5.2 SEGURTASUN-PROZEDURA

LEIOAKO UDALA da sua itzali eta larrialdiak seinaleztatzeko bitartekoak jarri eta mantentzeko arduraduna.

Enpresa adjudikaziodun bakoitza arduratu behar da Laneko Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legea betetzeaz.

Adjudikaziodunak, eta beren laguntzaileak, lehenengoen erantzukizunpean, mintegira sartu ahalko dira, modulua adjudikatu zaion enpresarekin lotutako lan-xedeetarako baino ez.

Modulura sartu behar bada eta ezinezkoa bada giltza, mekanismo biometrikoak edo txartela galdu, lapurtu edo ez dabilelako, adjudikazioduna LEIOAKO UDALAREKIN harremanetan jarriko da.

Mintegian sartu ahal izango dira, bakarrik, enpresa esleipendunen jabeak edo kontratu edo praktiketako harremana dutenak, aurretik agiri bidez justifikatuta.

### 5.2.1 Adjudikaziodunentzako sarbidea

Enpresa adjudikaziodunek eraikinera sartzeko giltza edukiko dute. Mintegira eta modulu bakoitzera sartzeko, hatz-marka digitalaren irakurgailu biometrikoa erabiliko da. Pertsona adjudikaziodunak moduluaren barruan gertatzen den guztiaren erantzule dira.

Enpresako langileei baino ez zaizkie giltzak emango eta erregistro biometrikoa gauzatuko, hau da, talde sustatzaileari eta enpresari lotutako langileei.

Arrazoiren batengatik adjudikaziodunak giltzaren kopia gehiago behar baditu, LEIOAKO UDALARI eskatuko dizkio. Adjudikaziodunak ezingo du kopiarik egin, LEIOAKO UDALAREN baimenik ez badauka.

Sartzeko giltza galdu edo hondatzen bada, berehala jakinarazi beharko zaio LEIOAKO UDALARI. Giltzak berriz entregatzeko, enpresa adjudikaziodunak kostua ordaindu beharko du, udalari transferentzia eginez, faktura aurkezten den unean bertan.

### 5.2.2 Adjudikaziodun ez direnentzako sarbidea

Eraikiner, mintegira eta moduluetera sartzeko, bisitek atezain automatikoak izango dituzte.

## 5.3 PREZIOA ETA BARNE DAUDEN KONTZEPTUAK

2016rako metro koadroaren prezioa 15 (hamabost) euroan ezartzen da, kontzeptu hauengatik:

- Esleitutako moduluaren erabilera, 10€ (hamar euro).
- Erkidegoko gastuetarako kontribuzioa: gune komunak atezaintza-zerbitzuak, garbiketa, ur beroa, argia eta mantentze-lana, erabilera anitza erabiltzeko eskubidea eta bainugela komunak. 2€ (bi euro).
- Elektrizitatea: modulueterako argindarraren kontsumoa, aire girotua, berogailua eta argiak. 3€ (hiru euro).

Mintegian dauden lehen urtean, enpresa esleipendunak %75eko hobaria izango dute esleitutako modulua erabiltzeagatik, eta bigarren urtean, %50ekoa. Bigarren urtetik aurrera, luzapena emango balitzaio esleipendunari, ez litzateke hobaririk aplikatuko. Hobaria modulua esleitzen den dataren arabera aplikatuko da.

Hil bukaeran, modulu bakoitzak ordainagiria egingo du, enpresaren titulartasuneko den kontuan helbideratuta.

Edozergatik itzulketarik egongo balitz, enpresa esleipendunak hartuko du bere gain finantza entitatearen komisioa, ordainagiria gehi komisioa ordainduz.

Enpresa adjudikaziodunen ardura da hori unean-unean ordaintzea. Bi ordainagiri baino gehiago, modu jarraituan, itzultzen badira, edo itzultzen den guztiaren batuketan bost ordainagiriren gaineratik badago, Leioako Behargintzak adjudikazio kontratua bertan behera uzteko eskubidea gordetzen du, egoerari so eginik. Kontratua bertan behera utzi baino lehen, enpresa adjudikaziodunen arduradun direnei jakinaraziko zaie eskubide hori betearaz dezakeela Leioako Behargintzak.

Kontratua desegiten bada ere, errenta ordaintzeko betebeharrak bere horretan jarraituko du modulua eta bere instalazioak LEIOAKO UDALARI erabiltzeko egoera onean itzultzen zaizkion arte.

Prezioaren berrikuspena: ezarritako errenta eta erkidegoa modulu guztietarako eguneratuko dira, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean, Kontsumo Prezioen Indizeen Sistemako Indize Nazional Orokorrean argitaratutako azken indizean jasan den ehuneko-aldakuntza aplikatuta. Ordainagirian bertan eguneratzea nahikoa izango da ordainagiri horretan eta hurrengoetan jakinaraz dadin.

## 6. AZKEN XEDAPENA

---

Oinarri hauek aurreikusten dutena Leioako Udalaren Alkatetza-presidentetzak xedatzen duenaren arabera daude. Haren menpe dago, baita ere, hauek interpretatzea, eta behin onartuta, aurretik onartutakoak indargabetzen dira, eta aplikatuko dira, baita ere, aurreko urteetan enpresa mintegian egindako guneen esleipenetara, esleipenaren baldintza nagusiak aldatzen ez diren bitartean.

Hortaz, ordainagiriak kalkulatzeko aintzat hartuko den prezioa kontratua sinatzean ezarritakoa izango da, eta horren gainean kalkulatuko dira aurretik jasotzen diren eguneratzeak.